

# Txiria atera eta basora

*Gaurtik eta udaberria iritsi arte txotxeko sagardoaz gozatzeko aukeran izango gara hiru hilabete luzean. San Sebastian jaien ondotik, gizon eta emakume, zahar eta gazte, guztiak sagardotegietara joateko prest dira, dastatzeko usadioari jarraitzeko asmoz. Gure sagardoa dastatzea gure historia dastatzea da. Iritsi da garaia.*



ARCHIVO

CARMELE ELIZARAN

GAURTIK AURRERA ETA UDABERRIKO LEHEN EGUNAK IRITSI ARTE IREKI DIRA SAGARDOTEGIETAKO ATEAK. Joan den urtean sagardogileak kontentu gelditu ziren denboraldia oso ona izan zelako. Aurten iazko emaitzak gainditzea espero dute.

Sagardoa joan den urtekoa baino askoz hobea datorrela ziurtatu dute sagardogileek, eguraldiak, jakina, horretan lagundu duela adierazten dute.

Bizkaitarrek, arabarrek, nafar ipar eta hegokoek nahiago dute Gipuzkoraino etortzeko autobusa alkilatu. Aukera badute. Astigarraga, Hernani, edo Goierri aldean sagardotegi asko dituzte itxoiten.

Batzuek betiko sagardotegiak aukeratuko dituzte, hau da, txikiak, sagardoarekin eta sagardogileekin kontaktu zuzenagoa izateko. Beste batzuk, handietara joango dira. Giroa askoz hobea dagoelako, horrela esaten digu behintzat tolosar batek: «Gu gazte talde bat gara eta joan den urtean, beste talde nafar batekin topo egin genuen Astigarragako sagardotegi batean. Izugarrizko parranda egin ondoren, aurten beste bat egiteko gelditu ginen. Otsaileko lehenengo ostiralean, hain zuzen».

Alkoholemiari ez diote beldur gazte hauek. «Arratsaldeko 7ak aldera trena hartuko dugu eta hurrengo goizeko 6ak edo 7ak aldera beste batean bueltatuko gara. Kotxea badugu, baina askoz lasaiago ibiltzen gara denok».

Sagardotegitik irten ondoren, Hernanira igoko direla ziurtatzen digu. «Joan den urtean horrela egin genuen. Giro oso ona egoten da eta gaupasa egiteko aproposa da. Gainetik, etxean badakite trenez joango garela eta beraiek ere lasaiago gelditzen dira».

Bilboko agentzia batekin harremanetan jarri ondoren, aurten ere autobusak antolatuko dituzte. «Arratsaldeko 4ak aldera irtengo dira autobusak eta buelta oso berandu egiten da». Gehienbat jende gaztea dela adierazten dute. «Prezio onean ateratzen zaigu. Joan den denboraldian, 4.000 pezetan autobusa eta sagardotegiko afaria ordainduta genuen».

Agentzia honen iritziz, Astigarrako Udalak edo beste norbaitek zerbait antolatu beharko luke kanpotarrentzat. «Modu honetan, sagardotegiak ezagutzeaz gain, inguruko beste herrietako leku interesgarriak ere ezagutzeko posibilitatea ematen baitzaio klienteari».

• • •

IPARRAGIRRE
Sagardotegia

*Asteazken, ostegun, ostiral eta larunbatetan irekitzen dugu.*

IPARRAGIRRE BASERRIA Tel. (943) 55 03 28 HERNANI